

Katalandarren

"Diada"



Egun gogoangarria zinez Kataluñako kondairan, joan den irailaren 11an mitu dena; berrogei urtez debekaturik egon ondoren, legez ospatu baitute aurten katalandarrek beren «Diada», beren Aberri-Eguna alegia.

Leku askotan antolatu dira jende-bilera gaitzak: Lleidan, Gironnan, Tarragonan, Seon. Baina bileretan nagusia, jakina, Barcelonan bertan izan da. Ez Barcelonan bertan, egia esateko; jaiaren etsaiak debekatzen saiatu direlako, eta debekatzen ez ausaturik, Barcelonatik urruntzea bederen lortu dutelako. Bilera nagusia, horretara, Sant Boi-n izan da, erditik hamar kilometrotara, Barcelonako aireportutik hurbil.

Zenbat jende bildu da Sant Boira? Ezin esan. Kaleak eta inguruak beribilez eta jendez mukuru baterik, anitz eta anitz, ehundaka kotxetan, gelditu da bertara azkenean ezin iritsirik. Jendaketaren xifre borobil bat eman nahi izanez gero, 100.000 eman behar bide da (biharamunean prentsak adierazten zuenez).

Hitzaldiak hasi baino lehenago, bi gertakari xume eta hunkigarri aipatu behar.

Alde batetik Rafael Casanova-rena: bertako eliza batetan lurperaturik, 10.000 lagun joan dira, enparantzara aurretik, katalandar famatuaren hilotzaren errespetuzko gorazarre isila eskaintzera.

Bigarrenak, berriz, Sant Boiko plazan bertan gertatua, barnagotik astindu gaitu euskaldunok. Sargori kiskalgarrian minutu luze batez iraun duen isilune isilak helburu berezia baitzuen: Irailaren 8an Hondarrabian hil den Zabala- ren heriotza gogoraztea. «Askatasunaren alde bere bizia galdu duen azken borrokaria», Maria Josep Arenós-ek esan duenez. Minutuak bukatu orduko- xe, euskal ikurriña bat eragin dute tribunaren aurrean zeuden euskal orde- zkariek; eta txalo-zartaldi zaratsua ez da berehala amaitu.

Eta orduan, denon arreta oraindik Gi- puzkoan zegoelarik, hitzaldiak hasi di-

ra. Lehendabizikoa, «Consell de Forces Politiques»-en izenean, Miquel Roca-k egin du. Zuhur bai, baina osoki ir- mo, Kataluñarentzako autonomia eska- tu du, 1938an indarka kendu zitzaiena berriz bihurtuko zaielarik. Txaloak uga- ri, behin eta berriz.

Askoz ere hotzago Octavi Saltor-i egin zaizkion agurra eta adioa. Saltor- ek sobera aipatu du kondaira zaharra; eta, batez ere, Saltor liberala, «Lliga» koa izana da gerla aitzinean. Hots, es- kuindarren «Lliga» hark erdipurdi jo- katu zuen gerla denboran katalandar abertzaleen iritziz. Hala ere, errespetuz tratatua izan da; eta azkarrago buka zezan, txalokadak gertatu dira desteno- rean; baina ez besterik.

Ta Roca bezain bero hartuta, azkene- koz, Jordi Cardonell mintzatu da. Beste biak baino plaza-gizonago agian, «Assemblea de Catalunya»-koen ize- nean hitzegin duen honek ere 1932ko Estatutoaren bihurrera eskatu du. Tar- teka-marteka, han eta hemen, behin eta berriz hasia eta berretua, eskabide ba- kar bat entzun da katalandar guztien ahotan:

«Libertat ¡Amnistia!
Estatut d Autonomia!».

Eta, ia bi ordu beranduago, eta irriba- rrea aurpegietan agertzen zela, abots ozenaz kantatu dituzte denek «Els segadors» nazio-kantaren hiru bertsoak.

«Visca Catalunya Lliure!» entzuten zen han eta hemen; eta orroa bat be- zala: «Visca!!!». Eta lau barra gorrien bandiera-itsasoa berriro kulunkatzen zen buruen gainetik.

Egun ederra zinez!

Eta, gu euskaldunontzako, egun argi- garri bat ere bai.

Han, ezker eta eskuinetik, maximalis- motik urrun, politika-eskabide bakar bat

entzun baita; han gerla-aurreko mugi- menduak eta gerla ondoko berriak, es- kuz esku ikusi baititugu; han gorriek eta zuriek eta horiek ikurriña bakar bat atera baitute: Kataluñarena; etorri- tako jendeen alde asandakoak esanik ere, arratsalde osoan hitzik bat ere gaztelaniaz entzun ez baita; liferentziak ezertan ukatu eda izkutatu gabe ere, errespetuz entzun baita deserritik Tar- radellas zaharrak igorri duen mezua, eta errespetuz ere agurtu Companys eta Macia-ren irudiak. Etendurarik ez Barcelonan, berriari ukorik ez. Aberria- ren egunean ABERRIA ospatu dute de- nek, Kataluña katalana. Aberria eta ez besterik «Diada»-ren egunean: eskuin- darrena eta ezkerarrena, zaharrena eta gazteena. Eraso bakar bat: sukurtsalis- ten kontrakoa. Hor denak bat. Katalan- darren artean, berriz, eskomigurik ez. Denentzako onargarri ez litzatekeen le- lorik bat ere ez. Haurtzarotik aterea da Kataluña. Nolako jarraipidea, adiskide- ok! Zein tristea, zein negargarria, gu- rean gertatzen dena!

Han ziren, bai, Kataluñako milaka banderen artean, beste banaka batzuk: hiru euskal ikurriña, esate baterako, zapi beltzez hornituak; Andorrako ban- dera bat, Andaluziako bi. Besterik zer? Bi bandera beltz, txikiak; eta bizpahiru aldiz tribunatik arbuatuak, beste hiru gorri-hori-more. Hori zen dena.

Eta sozialistek, eta PSUC-ekoek be- rek, inolako segientza gorrairerik ga- be, soil-soilik, behin eta berriz ohiru egin dute:

«Visca Catalunya Lliure!».

Barcelona Europa da. Bagenekien.

Baina inori ahantzi baldin bazitzaion, ederki oroitarazi digu «Diada»-ko bil- tzarre ederrak.